ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2019ko abenduaren 2a, astelehena • 139 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## AIARAKO UDALA

**Hasierako onespena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordaintzeko familiei laguntzak ematea arautzen duen ordenantzaren aldaketari**

Udalbatzak, 2019ko azaroaren 21ean egindako ohiko bilkuran, hasierako onespena eman dio Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordaintzeko familiei laguntzak ematea arautzen duen ordenantzaren aldaketari.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. eta 70.2. artikuluetan eta toki araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 56. artikuluan xedatutakoa betetzeko, espedientea jendaurrean jartzen da hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Epe horretan, interesa duen edozeinek aukera izango du espedientea udal bulegoetan aztertzeko eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada epe horretan, behin betiko onetsitzat emango da erabaki hau, udalbatzaren beste erabakiren baten beharrik gabe.

Ordenantzaren aldaketa indarrean sartuko da testua ALHAOn oso-osorik argitaratzen denean.

Arespalditza, 2019ko azaroaren 22a

*Alkatea*
*GENTZA ALAMILLO UDAETA*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.12.02 07:17:34 Z